

Bi doktore tesi defendatu dira HUHEZIn uztaileko lehen hamabostaldian

2009/07/09

2009ko uztailearen 1ean Ainhoa Larrañagak eta uztailearen 8an Arianne Kareagak, biak Lanki Institutuko kideak, beren doktore tesiak defendatu zituzten HUHEZI fakultatean, Eskoriatzan. Lehenak Brasilgo Kooperatibismoaren sustapenerako oinarriak aztertu zituen. Bigarrenak, berriz, diskurtso kooperatiboak langile-kolektiboan. **Biek bikain cum laude** atera zuten.



Ainhoa Larrañaga

Ainhoa Larrañagaren tesiak izenburu hau zuen: "**Brasilgo kooperatibismoaren garapenerako oinarriak: begiratu kritikoa Euskal Herriko legedi eta errealitate instituzional kooperatibotik**". Ikusirik Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren ibilbidea eta gaur egungo errealitatea arrakastatsua dela enpresa ikuspegitik, tesiak aztertzen ditu Brasilgo Kooperatibismoaren sustapenerako oinarriak. Ekonomia Solidarioaren esparruan erretzen ari den kooperatibismo berria indartzea du helburu. Batetik, Euskadiko Kooperatibak arautzen dituen 4/93 legearen alderaketatik, Brasilgo legeari ekarpenak egiten zaizkio. Bestetik, bertako kooperatibismo ofizial tradizionala ordezkatzeko Organizaçao das Cooperativas Brasileirasen (OCB) papera birplanteatzen du. 1988ko Konstituzio berriarekin elkartze askatasuna aldarrikatzen da eta honek, zuzenean eragiten du OCBk betetzen dituen funtzio eta eskuduntzetan. Egilearen ustez, klabeetako bat da arintzea kooperatiben eraketan dauden eragozpen, nagusiki burokratikoak.

Epaimahaia, berriz, honako doktore hauek osatu zuten: Baleren Bakaikoa epaimahaiburu, Henrike Galarza, Joseba Azkarraga, Adrian Zelaia eta Angle Elias.

Arianne Kareaga

Arianne Kareagak honako tesia aurkeztu zuen: "**Diskurtso kooperatiboak langile-kolektiboan. Kooperatibagintzari buruzko sentipenak Fagor Arrasaten**". Kareaga irakaslearen arabera, Arrasateko Esperientziak aldaketa sakonak bizi izan ditu azken hamarkadetan. Azken urteotan asko hazi da, bai negozio-bolumenari dagokionez zein langile kopuruan. Aldaketa eta transformazioek zerikusi zuzena dute egungo merkatuan lehiatzeko arau eta ekonomia globalizatuari erantzuteko premiekin, baina faktore gehiago eta sakonagoak daude horietan inplikaturik. Testuinguru horretan, egileak helburu izan du aztertzea kooperatibisten diskurtso, iritzi eta sentipenak. Kooperatibagintzaz dauden pertzepzio eta ideiak jaso nahi izan ditu, lan-kolektibo osoa hartuta. Azterketa egiteko, egileak Fagor Arrasate Kooperatiba Elkarteak aukeratu du.

Kasu honetan, doktore hauek osatu zuten **epaimahaia**: Joseba Azkarraga epaimahaiburu, Andoni Eizagirre, Zesar Martinez, Antxon Mendizabal eta Adrian Zelaia.